

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
60. zbkia.
2016ko ekaina



**Anoetako herriak
Moxtoneko
Ixabel Berasategi Ormazabali
esker onez**



Sarrera

“Anoetan inork omenaldi bat merezi izatekotan, Moxtoneko Ixabelek merezi du” herritar bati baino gehiagori entzun izan diogu.

2016ko Korputz Egunean omenaldi xume bat egin nahi genioke Ixabeli, jakitun garelako, herritar asko bezala, herri honetako erreferentzia izan direla Moxtone eta Ixabel.

Berriak Berri berezi honetan hainbat anoetarren lekukotzak jaso ditugu.

Herriari eman diozun guztia bueltatu ezin badute ere, hitz hauek zuretzat, Ixabel!

Anoetako Udala

MODESTOENEA (MOXTONE):

Tolaretik Ostatura

Modestoenea etxea, herritarren artean “Moxtone” izenez ezaguna, anoetarren XX. mendeko historian zentralitate sozial garrantzitsua bete duen espazioa izan da. Estankoa, denda, taberna eta jatetxea, anoetarren ospakizunen eta bilkuren protagonista izan zen hamarkada luzetan zehar eta herritarren aisialdian eta soziabilitatean oinarritzkoa bilakatu zen.

Jatorrian bestelako funtzioak bete zituen, ordea, etorkizunean Modestoenea bezala ezagutuko zen etxeak. Buztinagaren altzoan jaio zen Modestoenea, eta bere sorreran Buztinaga baserriaren tolaretxea zen. “Tolaretxe” izan zen eraikinarri deitzeko ohiko modua, “Moxtone” deiturak arrakasta hartu zuen arte. XIX. mendearen erdi aldera Buztinaga baserrian eta 1860-70 hamarkadetan gehitu zitzaion “Jauregian” Anoetako familia bat bizi zen, Gaiztarrotarrak. Familia honetakoak izan ziren Anoetako alkate eta apaiz asko. XIX. mendean Anoetako hainbat etxeren jabe eta, batez ere, sagardo merkatari edo “trantante” gisa agertzen zaizkigu familia honetako kideak, eta tolaretxeak euren ekonomian funtzio zentrala beteko zuela pentsa dezakegu.

Etxeari izena emango zion Modesto Ormazabal irurarra Gaiztarrotarren morroia zen. Igerabide baserrian bizi zen Maria Saralegi alkizarrekin ezkondu zen Alkizako parrokian, 1900. urtean, eta Buztinagaren tolaretxean maizter bezala jarri ziren bizitzen XX. mendearen hasiera aldera. Hala, iraganeko tolare leku eta upeltegia etxe bilakatu ziren. Bertan, hiru seme-alaba izan zituzten, Ignazio, Karmen eta Jose Mari. Karmen alabak 1925ean erosi zuen tolaretxea, Luis Berasategi zegamarrarekin ezkondu zen eta hauek eta hauen ondorengoak aritu ziren Moxtoneko denda eta taberna lanetan, XX. mende osoan zehar.

Hasierako eraikina ez zen gaur egun ezagutzen duguna. Jatorrian, sagardo ekoizpenera eta baserri langintzetara bideratutako eraikina zen eta bizilekuak eta ukuiluak osatzen zuten bere egitura nagusia. 1935-36 urteetan eraikin berria egin zen, orduan modan zegoen estilo neorregionalista euskaldunean. Tradizio kutsua eta modernitatea uztartuz, ostalaritza funtzioetarako prestatu zen eraikina.

La casa Modestoenea, conocida por Moxtone entre las vecinas y vecinos de Anoeta, ha sido un espacio con una función social importante en la historia del siglo XX de los anoetarras. Estanco, tienda, taberna y restaurante, fue protagonista de celebraciones y eventos de las vecinas y vecinos de Anoeta durante décadas, convirtiéndose en un referente de sociabilidad y ocio imprescindible para las vecinas y vecinos del municipio.



1936

Anoetako Alkartasuna pilotalekuaren inaugurazio eguna.
Anoetako baserri ia guztietako ordezkariak ateratzen dira argazkian, Moxtoneren aurrean.



Maria Saralegi eta Modesto Ormazabal, Ixabelen aitona-amonak.

ELKARRIZKETA

ELIZAKO KIDEAK

Maite Legarra Eremendi

1951ko martxoaren 4a (Anoeta)

Maite Larrarte Roteta

1942ko maitzaren 8a (Larraul)

Arantxa Arregui Izaguirre

1945eko martxoaren 16a (Asteasu)

Jose Martin Aristondo

1936ko uztailaren 27a (Anoeta)

Zein hitzen bitartez deskribatuko zenioke Moxtone ezagutzeko zortea izan ez duen anoetar bati?

Arantxa Arregui: Edozein ordutan azaldu Moxtonera eta beti ematen zizuten jaten. Izaskunek hainbatetan egiten zion Ixabeli errieta, beti baiezkoa eman ezin zuela esanaz. Baina, Ixabellek aurpegi ona jarri eta eskatutakoa ateratzen zizun.

Ez zineten anoetarrak soilik joaten, ezta?

Maite Legarra: Anoetarroz gain, kanpoko jendea ere ibiltzen zen. Inguruko enpresetatik eguneroko jende asko etortzen zen.

Jose Martin Aristondo: Kanpotar ugari ibiltzen zen Moxtonen. Anoetako festetan, Lizar-



tzako Kaxiano soinu jotzaile itsua bertan festa guztiak pasatakoa da. Ez zen ostatua, baina Ixabelen bihotz ona bide, festa guztietan jaten ematen zion eta lo-lekua jartzen zion. Musu truk! Horrelako harrerarekin kanpotarrak joango ez ziren ba.

Gau eta egun, familia guztia bertan lanean.

J.M.: Zein baino zein lan gehiago egindakoak dira. Garai batean, Anoetako telefono bakarra Moxtonen zen. Bertan, milaka dei jasotzen zituzten herritar guztioz galdezka. Deia jaso zutenaren abisua emanez, Izaskun askotan joaten zen Anoetako etxeetara. Ateagaraino ere hainbatean joan zen. Ez da broma!



M.Le.: Ixabelek lan asko egiteaz gain, gainerako guztiak ere lan ugari egiten zuten. Arantxa sukaldean lan eta lan ibiltzen zen. Baita Izaskun ere. Denak lan asko egindakoak dira.

Agintea Ixabelen esku.

Maite Larrarte: Ixabel denen ama izan da. Berak eman du bertako martxa guztia. Lana, lana eta lana. Ez zuen besterik buruan.

M.L.: Danak Ixabelengana jotzen zuten. Edozer gauza falta zela edo egin behar zela, denak bera-
rengana joaten ziren.

Ixabel, hitz gutxitan.

M.Le.: Erdaraz esaten den moduan, "de tan buena, tan buena, tan buena, tonta". Berari askotan esaten diot. Beti eman eta eman, eta askotan trukean ez zuen ezer lortzen. Baina, hala ere, ematen jarraitzen zuen.

Hala ere, izugarria izan da. Eta horrela jarraitzen du. Orain ere, elizatik irtendakoan guztiakin hizketan geratzen da. Oso harreman ona du jende guztiarekin.

J.M.: Zenbatetan joan ote naiz erosketak egi-
tera dirurik gabe. Eta, hala ere, etxera gura-
soek eskatutako guztiarekin itzultzen nin-
tzen. Dirurik izan ez arren, Ixabelek zor niona
apuntatu eta eskatutako guztia ematen zidan.
Egun batzuk pasa ostean, ordaintzera pasa-
tzen nintzen. Ea gaur egun nork egiten duen
hori.

Ixabelentzat hitz onak soilik ditut. Oraindik gogoan dut soldaduskara joan gineneko anek-
dota. Zozketa egunean, goizean goiz meza
entzun ondoren, gosaltzera Moxtonera joan
ginen. Tripa bapo bete eta Donostiarako bi-
dea hartu genuen. Behin zozketa amaitu eta
bazkal ostean, Anoetara itzuli eta Moxtonera
joan ginen afaltzera. Bertan, Ixabel gure zain
zegoen. Zozketako emaitzaren berri izateko.
Gugatik larrituta emakumea, hori marka hori!
Soldaduskara joan ginenean, bakoitzari janez
betetako pakete bana eman zigun. Horrelako
detaileak milaka zituen. Ixabelentzat gainera-
koen ongizateak bereak baino garrantzi handi-
agoa du.

A.A.: Denon ongia bilatzen du. Oso bihotz one-
koa da.



ELKARRIZKETA

ILOBA

Arantxa Otaegi Berasategi

1972ko abuztuaren 13a (Anoeta)

Zein hitzen bitartez deskribatuko zenioke Moxtone ezagutzeko zortea izan ez duen anoetar bati?

Moxtok eta Carmenek eman zioten bizia Moxtoneri. Seme-alaben laguntzarekin anoetarren gustukoa zen elkargune bihurtu zuten. Jende ugari biltzen zen. Hortaz, senide ia guztiak aritzen ziren bertan lanean. Eguneroko otorduez gain, urtean zehar hainbat ekitaldietako otorduak bertan egiten ziren. Besteak beste, Anoetako baserriarren egunekoa. Guztiak bazkaltzeko Moxtonen elkaritzen ziren. Trikitilari eta bertsolarien artean ikaragarrizko giroa izaten zen. Oraindik gogoan dut.

Ez ziren anoetarrak soilik joaten, ezta?

Leku guztietako jendea joaten zen. Txikitan bertan jolasean aritu eta asko eta asko ez nituela ezagutzen gogoratzen naiz.

Gau eta egun, familia guztia bertan lanean.

Familiako guztiek lan asko egiten zuten. Nire

ama sukaldean eta mahaiak zerbitzatzen aritzen zen. Izaskun baserrian eta tabernan aritzen zen. Antonio baserrian. Guztiak Moxtonen lan asko egindakoak dira.

Agintea Ixabelen esku.

Ixabelen ekarpena berezia zen. Txiki txikitatik Ixabel lanean aritu zen. Behin bertako funtzionamendua ikasita, Ixabelek hartu zuen Moxtoneren lidergotza. Gurasoak bizi zituelarik ere, berak eramaten zuen bertako martxa. Bai Moxtoneko bai eta etxeko kontu guztiak bere eskuetatik igarotzen ziren. Ixabel filtroa da. Eta oraindik izaten jarraitzen du. Bere esku jarraitzen dute kontu garrantzitsu guztiak.

Ixabel, hitz gutxitan.

Kanpoan uso, etxean otso. Ixabelek bi aurpegi ditu. Pertsona guztiek bezala. Kanpokoentzako Ixabel baina pertsona hoberik ez dago. Beti dago laguntzeko prest. Etxean beti berak esandakoa betetzea gustatzen zaio, ordea. Oroitzen naiz anai-arreben artean zein nolako eztabaidak izaten zituzten. Baina, bueltan bueltan, Ixabelek beti berea lortzen zuen (barre algaren artean). Egun jada pixka bat nazkatua dela uste dut. Hainbestetan kargu hartu eta guk jaramonik ez egiteak eragin dio. Hala eta guztiz ere, guk asko maite dugu!

ELKARRIZKETA

BENITA OTAEGI ETA GARMENDIA ANAIAK

Txomin Garmendia Vitoria

1945ko maiatzaren 3a (Anoeta)

Jose Luis Garmendia Vitoria

1936ko urtarrilaren 26a (Anoeta)

Benita Otaegi Saralegi

1933ko abenduaren 30a (Anoeta)

Zein hitzen bitartez deskribatuko zenioke Moxtone ezagutzeko zortea izan ez duen anoetar bati?

Txomin Garmendia: Betidanik ezagutu dut Moxtone. Bai taberna gisa, baita supermerkatu gisa ere. Herrian, orduan, Moxtone bakarrik zen eta denetarako joaten ginen bertara. Gerora ireki zituzten bai jatetxe eta bai supermerkatu berriak, baina, hala eta guztiz ere, Moxtonen ibiltzen zen jende gehien. Gerra ostean, errazionamendua ere Moxtonen egiten zen. Bertara joaten ginen anoetar guztiok tokatzen zitzaigunaren bila.

Ez zineten anoetarrak soilik joaten, ezta?

Benita Otaegi: Ez noski. Anoetarrok orduak igarotzen genituen bertan sartuta. Baita inguruko herrietako hainbatek ere. Bertako tratua paregabea zen eta guztiok atsegina genuen bertara joatea.

Gau eta egun, familia guztia bertan lanean.

Jose Luis Garmendia: Familia oso langilea zen. Gurasoek bizitza osoa lanean igaro zuten eta se-

me-alabei horretan jardun behar zutela irakatsi zieten. Baratzean, sukaldean, zerbitzatzen... han beti denentzako lana zegoen.

Agintea Ixabelen esku.

T.M.: Denak botatzen zuten esku bat Moxtonen. Baina Ixabelek agintzen zuen bertan. Karisma du eta etxekeok bere aginduak betetzen zituzten.

J.L.: Langile latza. Atsedetik batez. Lana, lana eta lana. Besterik ez zuen buruan.


B.O.: Etxe hartan, "Ixabel, Ixabel, Ixabel..." besterik ez zen entzuten. Denak berari deika. Gauza bat edo beste, beti Ixabelen laguntza behar zuten.

Ixabel, hitz gutxitan.

T.G.: Oso borondate oneko emakumea. Ezezkorik ez zuen inoiz esaten. Harengana gaueko 21.00etan edo 00.00etan joan, berdin-berdin emango zizun afaltzen. Beti laguntzeko prest.

J.L.: Soldadu joan nintzenean, Tolosako estazioan Ixabel ni agurtzeko zain zegoen, niretzako gazta bat esku artean zuela (hunkituta dio). Horrelako detaileak milaka. Hilerrian lanean aritu zen langilea Azpeitikoak zen. Hari ere hilabete horietan Moxtonen egin zion lekua. Auzolanera joaten zirenei botila ardoa eta ogitarteko bana ematen zien. Hark du hark laguntzeko grina. Besteri esku bat botatzeak zoriontsu egiten du.

B.O.: Ikaragarritzko emakumea. Denoi laguntzeko prest, beti. Buruz ere oso fina. Moxtoneko kalkulu guzti-guztiak buruz egiten zituen. Egun ere buru fin horrekin jarraitzen du. Nahiz eta berak jada lehengo burua ez duela esan, askotan esaten diot nik bere burua izan nahiko nukeela.



ELKARRIZKETA

JUBILATUETAKO KIDEAK

Esther Zelaia Zugasti

1945eko irailaren 13a (Anoeta)

Juani Cincunegi Laballen

1944ko apirilaren 18a (Amezketeta)

Zein hitzen bitartez deskribatuko zenioke Moxtone ezagutzeko zortea izan ez duen anoetar bati?

Juani Cincunegi: la egunero joaten nintzen erosketak egitera. Askotan dirurik gabe joandakoa naiz. Hala eta guztiz ere, beti eskuak beteta itzultzen nintzen etxera. Garai hartan, etxeetan ez zen gaur bezainbeste diru izaten. Gehienetan, zorrak kitatzeko gurasoek kobratu zain egoten ginen. Egoera horren aurrean, Ixabelek honakoa esaten zigun: "nik emango dizuet behar duzuen eta aitak kobratutakoan itzuliko didazue".

Esther Zelaia: Denetik aurki zenezakeen bertan. Otordu eder batetik hasi eta abarketak erosteraino. Kolore guztietakoak, gainera. Han ez zen ezer falta. Eskatutakoa ez bazuten, konturatzerako, Ixabelek nonbaitetik lortzen zuen.

Ez zineten anoetarrak soilik joaten, ezta?

J.C.: Kanpotar ugari ibiltzen zen. Bai inguruko herri-takoak, bai eta urrutixeagotik etorritakoak ere. Ixabelek guztiak paregabe zaintzen zituen. Erdalduna ala euskalduna izan, denak berdin tratatzen zituen. Ixabelek erdalduna izateagatik ez zuen inor baztertzen.

E.Z.: Non ez zuten ezagutuko Moxtone. Baita Ixabel ere. Bertara behin etorritakoa, beti itzultzen zen. Harrera bikain horrek eta eskainitako zerbitzu ezin hobek guztioi itzultzeko grina pizten zigun.

Gau eta egun, familia guztia bertan lanean.

J.C.: Denek lan asko egiten zuten. Baina, Ixabelek Moxtonen egindako ekarpena gainerakoengandik asko alderatzen da. Beste anai-arrebak lanean finak izan arren, izaera zorrotzagoa zuten. Ixabelek ez ordea. Beti zoriontsu eta jendeari laguntzeko prest.



E.Z.: Han ezezkoa jasotzea ezinezkoa zen. Taberna itxitakoan joan eta gosez zeundela esanda, jaten emateko lanean hasten ziren. Jendeari laguntzeagatik egiten zuten. Ez diruagatik. Haiek, eta batik bat Ixabelek, ezin zuten jendea gosea pasatzen ari zela ikusi. Behin taberna itxitakoan ere, bat baino gehiagori jaten emandakoak dira.

Agintea Ixabelen esku.

J.C.: Ixabeli horren eskuzabala izateagatik senide askok kargu hartzen zioten. Baina, berak nahi



zuen egiten zuen. Hark agintzen zuen bertan eta azken erabakia beti berak zuen.

Ixabel, hitz gutxitan.

J.C.: Egun hainbat ONGk egiten duten lan bera egiten zuen garai hartan Ixabelek. Besteei lagundu. Aditzera eman gabe egiten zuen guztia. Makina bati eman dio jana isil asko. Beti aurpegi ona, alaitasuna. Gaur egun, ez dago Ixabel bezalakorik. Guk esandako guztia gutxi da. Eta seguru berak egindako on guztia ez duela onartuko. Az-

kenean, egindako oro bere borondate eta bihotz onetik egin zuen. Eta orain, guzti hori ez du onartuko. Ez duzue Ixabeletaz gaizki esaka ibili den inor aurkituko. Guztiok asko maite dugu!

E.Z.: Eskuzabala. Gabonetan, Moxtonen maiztasunez ibiltzen ginen guztiei piña eta mertxika lata bana ematen zizkigun. Garai horretarako, hainbeste jenderi bina lata ematea ez da makala. Herriko kontu asko ordaindutakoa ere bada. Ermandadea ordaindu behar zenean, Moxtonekoek beren gain hartzen zuten.

ELKARRIZKETA

KUKUKO KIDEAK

Lorentxo Artola Saralegi

1956ko apirilaren 19a (Anoeta)

Begoña Urkizu Beraza

1957ko maiatzaren 17a (Anoeta)

Patxi Etxaniz Landa

1955eko apirilaren 27a (Anoeta)

Mari Jose Iturrioz Urkidizar

1956ko otsailaren 25a (Anoeta)

Zein hitzen bitartez deskribatuko zenioke Moxtone ezagutzeko zortea izan ez duen anoetar bati?

Lorentxo Artola: Moxtonen betidanik ibili gara. Denda eta taberna bezala funtzionatu du. Umetan batik bat erosketak egitera joaten ginen. Behin ume izatea utziz gero, etxeko mandatuak alboratu eta norbera bere mandatuak egitera joaten zen (barrez dio). Hamabost urterekin hasi ginen bertara joaten. Ordutik itxi zuten arte, Moxtonera joateko joera izan dugu. Astebururo bertan afaldu eta ondoren inguruko herrietara joaten ginen parrandara.

Ohikoa zen mezaren osteko hamaiketako saioa Moxtonen. Gogoan dut egun batean gertatutakoa. Asko eta asko hamaiketakoa egitera joan eta goizeko ordu txikietan irteten ziren Moxtonetik. Egunduz bertan igarota. Egoera horren aurrean, hainbat senar-emazte seme-alabekin joaten ziren hamaiketakoa egitera, horrela, seme-alaben aitzakiarekin, lehenago etxeratuko zirelakoan. Igandea zen. Meza amaitu eta Moxtonen hainbat herritar hamaiketakoa egiten ari ginen. Gizonezko batek Ixabeli honakoa esan zion: "Gaur semea ere hemen da Ixabel. Gauza asko eskatuko dizkizu egun guztian zehar. Zuk eskatutako guztia eman, ume honek ez baitu inongo kulparik. Ni joan arte hemen egon beharko du". Taberna giroan ibiltzen zen anoetarren gehiengoak bertan izaten zen. Herriko hainbat kirol txapelketa

hango tertulietatik ateratakoak dira; palako eta futboleko txapelketak, beste hainbaten artean.

Patxi Etxaniz: Gure garaiko gaztetxea zen. Besterik ez zegoen herrian eta hantxe elkartzen ginen egunero.

Begoña Urkizu: Soldaduskako eta ezkontzeta-ko despedida ia guztiak Moxtonen egiten ziren. Baita herriko festetan hainbat bazkari ere. Ikargarrizko mugimendua zuen.

Ez zineten anoetarrak soilik joaten, ezta?

B.U.: Alkizarrak, adibidez, larunbatetan astoarekin Anoetara jaisten ziren, Anoetan edo Tolosan beren egin beharrekoak egitera. Astoak Moxtonen uzten zituzten eta, eguna pasa ostean, berriz ere astoa hartu eta etxeratzen ziren. Bueltako bidea hartu baino lehen, denak Moxtonen geldialdia egiten zuten.

L.A.: Ez, noski. Astean zehar inguruko jendea ibiltzen zen. Batik bat, Anoetaldeko enpresetan lanean ibiltzen zen jendea. Herriko festetan, esaterako, Tolosatik jende asko etortzen zen. Horietako askok otorduak Moxtonen egiten zituzten.

Gau eta egun, familia guztia bertan lanean.

L.A.: Estankokoek ematen jasotzen baino gehiago disfrutatzen zuten. Beti besteen zoriontasunaren bila lanean.

P.E.: Horrenbeste lan egindako etxe gutxi izango dira Anoetan. Eguna joan eta eguna etorri, seme-alaba guztiak lan eta lan aritzen ziren.

Agintea Ixabelen esku.

Mari Jose Iturrioz: Bertan Ixabelek agintzen zuen. Hark esaten zuen guztia betetzen zen. Gainerakoek, askotan bere erabakiei aurka egin arren, beti Ixabelek esandakoa eginez bukatzen zuten. Hura zen etxeko liderra, eta Moxtone haren esku zegoen.

Ixabel, hitz gutxitan.

M.J.: Umorez betetako pertsona. Buruz fina. Bere ama bezala. Biak ala biak, kontu guztiak buruz egiten zituzten. Amak, gainera, altuan kontatzen zuen. Hainbat broma egin dizkigu, bai. Esaterako, 5+8, 17 zela esaten zuen eta ondoren guri begiratu. Ea jabetu ginen jakiteko (irribarrez dio).

L.A.: Anoetarrok zorte handia izan dugu. Guztion bigarren ama izan da. Berak izandako detaile guztiak ezin dira hitzez azaldu. Soldaduskara joaten zenari, tabakoa erregalatzen zion. Erosketak egiten ibiltzen zenari, mertxika eta piña. Ixabel ezagutzen duen orok ez du harekiko hitz txarrik esango.

Milaka ekintza dira Ixabelen eskuzabaltasunaren erakusle. Batetik, duela urte asko, Anoetan, hiru bat urtez, gizonezko bat bizi izan zen kotxean. Denbora tarte guzti horretan, egunero Moxtonen musu truk bazkaltzen zuen eta, gainera, Ixabelek tabako pakete bat ematen zion.

Behin despedida bat izan genuen. Eta angula jana egin genuen Moxtonen. Horrelakoetan, Ixabeli aurrez aipatu eta berak erosten zituen. 13.000 pezeta inguru kostatuko zitzaizkion Angulak. Hura ere ez zigun kobratu nahi. Berak arrandegian patutakoa ere ez zuen guk berari ematea nahi. Sines-tezina, baina horrelaxe izan zen.

Bestetik, neguko egun luzeetan makina bat ordu igarotakoak gara. Neguan gaua luzea izaten da eta eguna motza. Baita Moxtone barrenean ere. Oraindik gogoan dut behin gertatutakoa. Gau batean afaltzera joan ginen. Trago batzuk hartu eta kontu kontari ginela, konturatzerako berandutu egin zitzaigun. Horrelako kasuetan, etxera joateko

Ixabelek argia jartzen zigun. Gutako batzuk goi bailaran bizi ziren. Zenbat buelta egin ote zituzten etxe aldera abitu eta berriz ere Ixabeli kandela pizteko esanez. Zeuden egoeran egonda, etxerako bideak luzera bikoitza zuen, eta erdibiderako kandela itzaltzen zitzaien (barre algarez). Hortaz, atzera Moxtonera itzuli eta Ixabel bertan zain.

Herriko festetan hainbat anoetarri etxeko atea irekitzen zizkien. Herrian bizi eta, hala ere, askok eta askok gaua Moxtonen igarotzen zuten.

Guzti hauek bere borondate ona ikusteko balio dutela uste dut. Baina, Ixabel epaitzeko ezagutu beharra dago. Behin ezagutuz gero, ikaragarriko estimua hartzen diozu.

B.U.: Festetan bertan gaua pasatzen zuten horiek beti esaten dute, etxekoei gaua etxetik kanpo igaro behar zutela esan, baina Anoetan pasako zutela esatean, ama lasai geratzen zela. Amak bai baitzekien beste "ama" baten etxean geldituko zirela. Horixe izan da guretzat, ama bat.

P.E.: Zenbat jende izango ote ditu oraindik zorrak Ixabelekin. Askotan, dirurik ez zuenari lasai egoteko eta hurrengo batean ordainduko ziola esaten zion. Dena apuntatzen zuen hark, baina askok eta askok ondoren ez zuten ordaintzen. Berak hori jakin arren, ez zuen inoiz ezer esaten.



ELKARRIZKETA

ATEAGAKO KIDEAK

Octavio Hernandez Vicente

1931ko azaroaren 20a (Salamanca)

Joakin Calleja Tolosa

1932ko urtarrilaren 24a (Tolosa)

Gabriel Gobantes Fernandez

1948ko abuztuaren 5a (Donostia)

¿Cómo describirías Moxtone a todos aquellos anoetarras que no han tenido la suerte de conocerlo?

Octavio Hernandez: En pocas palabras, un sitio en el que podías encontrar de todo. Todo tipo de comida, alpargatas, varios productos de la farmacia... Lo que no había en Moxtone, no existía. Solía ir casi a diario a hacer la compra. Ni que decir de las comidas que hacíamos. Solíamos comer varios días a la semana. Y el chiquiteo diario no nos lo quitaba nadie. Impresionante.

Gabriel Gobantes: Hubo un tiempo en el que en todo Anoeta había solamente un teléfono. Como no, se encontraba en Moxtone. Era la centralita. A saber cuántos kilómetros han recorrido los de Moxtone para avisar a los anoetarras de que habían recibido una llamada a su nombre.

Joakin Calleja: Recuerdo como pedíamos unos espárragos y nos sacaban la lata entera. Muy abundante todo. Sacaba el puchero a la mesa y cada uno comía todo lo que quería. Si buscabas cantidad y calidad, Moxtone era el sitio adecuado. Despedidas de soltero, comidas de empresa... se celebraban en Moxtone.

¿No era un lugar habituado solamente por los anoetarras, verdad?

G.G.: No, no. Irura, Tolosa, Alkiza... venía gente de todos los pueblos. Era un sitio muy conocido en los alrededores. Los sábados la gente que solía bajar de Alkiza a la feria dejaba los burros al lado de Moxtone. Antes de volver a casa, todos entraban en Moxtone. Era un ritual.



La familia entera trabajaba día y noche para poder sacarlo adelante.

J.C.: Toda la familia trabajaba muchísimo. Tanto en el supermercado, como en el restaurante. Todos se involucraban al cien por cien.

Todavía me acuerdo como iba Ixabel a Tolosa a vender lechugas. Ponía tres o cuatro docenas en una cesta encima de la cabeza, he iba ttipi-ttapa a Tolosa. Y la de veces que vino Izaskun a nuestra casa a avisarnos de que habían recibido una llamada preguntando por nosotros.



Joakin, Gabriel eta Octavio.

Ixabel llevaba el timón del negocio.

G.G.: Ixabel era la jefa de Moxtone. Ella era la que llevaba todo el movimiento del bar. Todos los demás trabajaban en la misma, pero Ixabel era la que se encargaba de organizar todo.

Ixabel, en pocas palabras.

O.H.: No tengo nada malo que decir de ella. Nos ha dado tanto que solo tengo buenas palabras. Fíjate desde cuando la conozco y a día de hoy me sigue hablando de usted. Ha sido la madre de

todos los hermanos y la nuestra también. Nos ha cuidado como a su familia.

J.C.: Muy maja! Nos llamaba melocotones a todos, pero es auténtica (entre risas). Tanto a mí como a todos aquellos que conozco, nos a echo infinidad de favores. Siempre decía que si a todo. Más de una vez encontrarnos con el comedor lleno y nos decía que esperáramos un poco, que enseguida nos daba de comer.

G.G.: Una mujer 10. Hoy día es difícil encontrar un lugar como Moxtone y a una como Ixabel.

60

BERRIAK
BERRI



Ixabelen anaia den Iñakiren ezkontzan (1971).
Ixabel behean dagoena da, bigarrena eskuinetik hasita.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA